# NAhitA

Abril 2015eko Apirila
Nº 25.zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpena Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua



% 100 paper birziklatua. Kloro eta zuritzaile optikorik gabea.
Papel 100% reciclado. Sin cloro ni blanqueantes ópticos.

*Sofia Menoyoren irudia. Emakume langileak irudikatzen ditu: etxeko langileak, jostunak eta maquiletakoak.*
Imagen de Sofía Menoyo. Representa a las mujeres trabajadoras domésticas, de la costura y de las maquilas.

## >> BIDEZKO MERKATARITZA. LOS TRAPOS SUCIOS DE LA DESIGUALDAD.

## SETEM HEGO HAIZEA <<

# >> PROGRAMA ´ESCUELA DE EMPODERAMIENTO´
# >> ´JABEKUNTZA ESKOLA´ren EGITARAUA

## LIDERGOA ETA KOMUNIKAZIORAKO TREBETASUNAK (14 ORDU) / HABILIDADES PARA EL LIDERAZGO Y LA COMUNICACIÓN (14 HORAS)

Del 20 de abril al 1 de junio, LUNES, de 18:00 a 20:00h.

Formadora: Irantzu Varela (Faktoria Lila) · **Matrikula: 5 Euro**

**Guztiok barruan daramagun komunikatzaile ona ateratzeko erremintak landuko ditugu eta kalean, lanean, antolakundeetan eta komunikabideetan gure espazioa okupatzeko inguruak ipintzen dizkigun oztopoak -edo guk geuk geure buruari jartzen dizkiogunak- gainditzeko. Gainera, aukeratzen ditugun espazio publiko zein pribatuetan lidergoa gauzatzeko gaitasunak eta trebetasunak sendotuko ditugu. Praktikaren bitartez, eskuliburu pertsonalizatu bat landuko dugu partaide bakoitzarentzat.**

Se trabajarán las herramientas para sacar la buena comunicadora que todas llevamos dentro y superar los obstáculos que nos pone el entorno, o que nos autoimponemos, para ocupar nuestro espacio en la calle, el trabajo, las organizaciones y los medios de comunicación. Además, se fortalecerán las capacidades y habilidades para ejercer un liderazgo en los espacios públicos o privados que elijamos. A través de la práctica, estableceremos un manual de comunicación personalizado para cada una de las asistentes.

## MODA DESEROSOA, TIRA DEZAGUN HARITIK: KONTSUMO ARDURATSUA ETA EHUNGINTZA-INDUSTRIA (10 ORDU) / LA MODA INCOMODA, TIREMOS DEL HILO: CONSUMO RESPONSABLE E INDUSTRIA TEXTIL (10 HORAS)

7 y 14 de mayo, de 17:00 a 20:00h y 21 y 28 de mayo, JUEVES, de 18:00 a 20:00h

Formadora: Laura Castresana eta Carolina Gajardo (SETEM Hego Haizea) · **Matrikula: 5 Euro**

**Ba al dakigu benetan zer ezkutatzen den gure arroparen atzean? Kasualitatea al da ehungintza-industria sektore guztiz feminizatua izatea? Zer egin dezakegu errealitate hori aldatzeko? Jostura bakoitzaren atzean arroparen ekoizpena eta kontsumoaren arteko harremana ezkutatzen da. Haritik tiratuko dugu Mendebaldean erosten dugun arroparen etiketen atzealdean zer dagoen ikusteko (ehungintzako langileen esplotazioa) eta gauzak aldatzeko modua aurkitzen ahalegintzeko.**

¿Sabemos realmente qué se esconde detrás de nuestra ropa? ¿Es casualidad que la industria textil sea un sector altamente feminizado? ¿Qué podemos hacer para transformar esta realidad? Detrás de cada costura se esconde la relación entre la producción y el consumo de ropa. Tirando del hilo veremos aquello que queda detrás de las etiquetas de la ropa que compramos en Occidente (la explotación laboral de las trabajadoras del textil) y encontrar la manera de cambiar las cosas.

## MINUTUKO BIDEOAREN TAILERRA. EMAKUMEAK ELKARREKIKOTASUNEAN( (16 ORDU) TALLER VÍDEO DEL MINUTO. MUJERES EN CORRESPONDENCIA (16 HORAS)

Del 8 al 11 de junio, de LUNES a JUEVES, de 16:00 a 20:00 h.

Formadora: Amal Ramsis (Kultura, Communication y Desarrollo KCD ONGD) · **Matrikula: 5 Euro**

**Norentzat / Dirigido a:** Ikusentzunezkoen alorrean ezagutzarik ez duten 18 urtetik aurrerako emakume guztientzat / Mujeres sin conocimientos previos en el ámbito audiovisual, de cualquier edad a partir de 18 años

**Tailer ibiltari bat da, helburua emakumeen ikus-entzunezko erreminten alorreko jabekuntza izanik. 2010 urtetik hona munduko hainbat lekutan egin izan da. Aurten Kairon (Egipton), Managuan (Nikaraguan), Oaxakan (Mexikon) emango da eta ekainean Ermura (Bizkaia) iritsiko da. Errealizazio-oinarri minimoak ikasiko dituzte partaideek. Emaitza minutu bateko laburmetraia bat izango aurten aukeratutako "Gehiegikeriak" gaiaren inguruan.**

Taller itinerante cuyo objetivo es el empoderamiento de las mujeres en las herramientas audiovisuales. Se ha realizado en diferentes partes del mundo desde 2010. Este año se impartirá en El Cairo (Egipto), Managua (Nicaragua), Oaxaca (México) y en junio llegará a Ermua (Bizkaia). Las mujeres participantes aprenderán unas bases mínimas de realización. Como resultado, elaborarán un cortometraje de un minuto sobre el tema elegido este año: "Los excesos".

## PRESTAKUNTZA-ETA PARTAIDETZA-GUNEA ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

PELBIS-ZORUAREN SENDOTZE-ARIKETAK PRAKTIKATZEKO ESPAZIO AUTONOMOA
ESPACIO AUTÓNOMO PARA LA PRÁCTICA DE EJERCICIOS DE REFUERZO DE SUELO PÉLVICO



**Todos los lunes, de 5 a 6 de la tarde · Doakoa/Gratuito**

**KULTUR IRTEERA / SALIDA CULTURAL: ekainaren 20an / el 20 de junio**

Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!

Tfnoa: 943 17 10 30 · e.posta: igualdad2@udalermua.net · http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_espacio_formacion.asp

# Editoriala

Hauteskunde-kanpainan gaude eta hainbat dei jasoko ditugu aurten gure botoa emateko. Krisi eta ustelkeriaren itzalak, espazio politikoan indarrez sartu diren sigla berriek eta beste zenbait aldagaik etorkizunean zer gertatuko ote… zain gaude.

Zer nahi dugu emakumeok? Politikaren eta ekonomiaren arloan gure presentzia eta lidergoa aurrera doaz, bai, baina oso motel. Genero-desberdintasunak berdin-berdin jarraitzen du gure gizartean, gauza garrantzitsuak zein diren erabakitzen den tokietan emakume gutxi dagoelako. Zalantzarik gabe, emakumeen presentzia urri horren ondorioz ez da gutxitzen emakumeen lan-ezegonkortasuna, ez eta emakume eta gizonen arteko soldata-diferentzia, eta pobrezia eta heziketa falta emakumeen artean nagusitzen dira batez ere.

Polítika-kontuetan badakigu emakume izatea ez dela erabateko bermea, baina badu bere balioa. Benetan ezinbestekoa dena feminista izatea da, zeren feminismoa mugimendu soziala eta politikoa da, erabat demokratikoa, hainbat balore defendatzen dituena: gizarte-ongizatea eta gizarte–justizia, herritarren lankidetza eta partaidetza, eta gizakien aniztasunarekiko errespetua. Feministek egunero egiten dute politika, espazio orotan, momentu guztietan, beraien ideia, egintza eta gorputzekin, Kate Millet-ek honela definitu zuen: "pertsonala politikoa da".

Emakume asko daude politika "feministizatze"aren zereginean murgilduta, beraien ahots propioa entzunarazteko, beraien begirada propioarekin begiratzeko. Borroka latza da. Egitura hierarkiko klasikoko alderdi politikoetako kide diren emakumeek ez dute desberdintasun horretatik aldentzea lortzen eta, paradoxa izan arren, berdintasunaren alde dauden antolakundeetan ere gogor borrokatu behar dute talde bereko gizonekiko berdinak direla aitor diezaieten.

Argi utz dezagun: kontua ez da bakarrik emakumeei gizonei beste ahalmen eta eskubide ematea. Feminismoaren eskakizunei erantzuten ez diena eredua bera da, zeren kontua ez da emakumea gizonaren kategoriara altxatzea, eredu-aldaketa osoa burutzea baino, eta giza-biztanleriaren erdiak jasaten duen zapalketa egoera bidezkotzen eta legitimatzen duten balore, estereotipo, dikotomia eta tradizioak errotik bertatik ateratzea.

Estamos en campaña electoral y este año recibiremos unas cuantas convocatorias para votar. Las sombras de la crisis y la corrupción, las nuevas siglas que irrumpen con fuerza en el espacio político y algunas otras variables hacen que estemos expectantes ante lo que suceda en el futuro.

¿Qué queremos las mujeres?. En el mundo de la política y la economía, nuestra presencia y liderazgo progresa con suma lentitud. La *desigualdad de género* en nuestra sociedad se mantiene, en gran parte, porque hay pocas mujeres en los ámbitos donde se decide qué cosas son importantes. Sin duda, esa escasa presencia hace que la precariedad laboral de las mujeres no se reduzca, ni tampoco la brecha salarial entre trabajadoras y trabajadores, y está contribuyendo a que la pobreza y la falta de educación tengan nombre de mujer.

Sabemos que, en esto de la política, ser mujer no es garantía total, aunque tiene su valor. Lo realmente indispensable es ser feminista. Porque el feminismo es un movimiento social y político, profundamente democrático, que propugna los valores del bienestar y la justicia social, de la colaboración y la participación ciudadana, del respeto por la diversidad humana. Las feministas hacen política día a día, en cada espacio, en cada momento, con sus ideas, sus actos y sus cuerpos. Kate Millet lo expuso brillantemente al decir que *"lo personal es político"*.

Muchas mujeres están en la tarea de "feministizar" la política, para que se oiga su propia voz, para mirar con su propia mirada. Es una ardua lucha. Las mujeres que militan en partidos políticos de estructura jerárquica clásica tampoco consiguen estar libres de esa desigualdad, y han de luchar por su reconocimiento como iguales respecto a los hombres de su propio grupo, en organizaciones que, paradójicamente, en sus programas electorales se declaran a favor de la igualdad.

Dejemos bien claro que no se trata, solamente, de conceder a las mujeres igual capacidad y los mismos derechos que a los hombres. Es el modelo el que no responde a las demandas del feminismo. Porque no se trata de elevar a la mujer a la categoría del hombre, sino de llevar a cabo un cambio de modelo que, desde la raíz, elimine los valores, estereotipos, dicotomías y tradiciones que justifican y legitiman la situación de opresión de la mitad de la población humana.

# >> EZAGUTZEN AL DUZU...? ¿CONOCES? <<

## DOAKOA ETA EUSKARAZ

## NUEVA APP DEL TRIBIAL FEMINISTA, GRATUITA Y EN EUSKERA

TRIBIAL FEMINISTA

Kultura herrikoiaren inguruko Trivial Pursuit galdera/erantzun jolas famatuan oinarriturik Ermua, Arrasate, Basauri, Ondarroa eta Zierbenako, eta Uribe-Kostako Mankomunitateko udaletako (Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopelana eta Urduliz) berdintasun sailek TRIBIAL FEMINISTA aurkeztu eta zabaldu genuen 2010 urtean, kirola, historia, geografia, arte eta literatura, zientzia eta ikuskizunei buruzko 1200 galderako taula-joko bat, zeinaren bitartez eremu horietako bakoitzean emakumeek eta feminismoak historian zehar eginiko ekarpena berreskuratzen den.

El Tribial feminista, con sus fichas y tarjetas de preguntas, fue presentado en el año 2010 como una herramienta para el empoderamiento de las mujeres, para la sensibilización y la visibilización de su aportación a la sociedad, con la misión de promover la igualdad real de mujeres y hombres y contribuir al cambio de mentalidades.

El éxito de la iniciativa fue tal que, 5 años después, IRONTEC, empresa bilbaína de software libre con experiencia en este tipo de proyectos, ha presentado el juego en formato de aplicación móvil didáctica, para smartphones y tablets.

Aplikazioa Irontec euskal enpresak garatu du eta jokoaren edukiak udal korporazioek landu dituzte. Proiektua Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin finantzatu da.

Aplikazioa doakoa da eta galderak euskaraz daude. Horren bitartez, eta gure gizartean denok egiten dugun gailu mugikorren erabilera handiaz baliatuz, jokoaren ahalik eta hedapen handiena lortu nahi dugu, jende gehiagorengana iritsi daitekeelako eta, ondorioz, eragin handiagoa izan.

La app está dirigida a personas de todas las edades que quieran aprender la historia desde otro punto de vista. Nace con un total de 180 preguntas, y paulatinamente se irán incorporando otras nuevas. Se le han añadido elementos de jugabilidad típicos de aplicaciones móviles (barra de tiempo, aumento de vida por compartir en redes sociales, etc.).

Está ya disponible en Google Play para Android y en Apple Store para iOS.

Deskargatu aplikazioa eta has zaitez jolasean. Konpartitu sareetan.

**Informazio gehiagorako**
**http://www.irontec.com**



Setem

# HEGO HAIZEA

## ONGD VASCA DE COOPERACIÓN, SENSIBILIZACIÓN Y EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO

SETEMen lehen erakundea 1968an Catalunyan jaio bazen ere, Euskadin 1991ean eratu zen. SETEM Federazioaren baitako antolakunde guztiek nortasun juridiko propioa daukate eta beraien kabuz jarduteko autonomia, koordinazio-espiritu oso baten barruan.

SETEM Hego Haizea lankidetza, sentsibilizazio eta garapenerako heziketako gobernuz kanpoko euskal erakunde bat da, Iparra eta Hegoaren arteko desberdintasun gero eta handiagoaz eta horren zergatiaz herritarrak sentsibilizatzeko jaiotakoa, eta pertsonen, herrien eta kulturen arteko harremanetan giza-eskubide indibidualak eta kolektiboak lehenetsiko diren mundu bat eraikitzeko moduko eraldaketa pertsonal eta kolektiboak suspertzeko, iraunkortasun sozial eta ekologikoa bermatuz, eta generoen ekitatea ere bai.

SETEMekoek badakite gure kontsumo- eta ekoizpen-praktikak gizarte-aldaketa ekar lezaketen jarduerak direla, horregatik kontsumo- eta ekoizpen-eredu kontziente eta arduratsuagoen alde lan egiten dute, non irizpide etiko, sozial, kultural eta ingurumenekoak kontutan hartzen diren giza-garapen iraunkorra sustatzeko tresna moduan.

Ildo honetatik hainbat kanpaina egin dituzte: Red Zarensare-EnRedando, Zentzuz Kontsumitu, Finantza Etikoak, Arropa Garbia, Merkataritza Justua eta Merkataritza-akordioak.

Ikerketa, salaketa, sentsibilizazio, prestakuntza eta garapenerako lankidetzaren bitartez ekimenak suspertzen dituzte, aldaketa handiak dakartzaten lorpenak keinu txiki tankeran eskuratuz.

La equidad de género es un eje transversal en su trabajo, por lo que impulsan y promueven el empoderamiento de mujeres organizadas. Setem coordina campañas como la de “Ropa Limpia” y lucha para que las trabajadoras textiles tengan un salario digno y para la mejora de las condiciones laborales en todos los ámbitos de este sector.



Mayoritariamente son mujeres las que pegan las zapatillas que compramos y cosen la ropa que vestimos, y lo hacen en condiciones indignas.

La denuncia de las empresas textiles irresponsables y la sensibilización hacia las personas consumidoras ocupa también un lugar en la actividad de esta ONGD, que cree posible y promueve cambios hacia modelos de producción, consumo y finanzas más sostenibles, más justos, y desde una perspectiva de género.

Desde 2009, para llevar a cabo esta labor de reflexión y acercamiento a otros modelos de consumo más conscientes y responsables entre la ciudadanía vasca, utilizan la estrategia “municipios éticos”, trabajando con el tejido asociativo de cada municipio (asociaciones de mujeres y entidades sociales, culturales y políticas).

**¡Transformate con SETEM!**

**Informazio gehiagorako**
**http://www.setem.org/site/eus/euskadi**
**http://www.setem.org/site/es/euskadi//kadi**

>> EL COMERCIO JUSTO ES UNA ALTERNATIVA VÁLIDA QUE TRATA DE ASEGURAR, ENTRE OTRAS, CONDICIONES DE TRABAJO Y SALARIOS DIGNOS, QUE NO SE USA MANO DE OBRA INFANTIL Y QUE SE RESPETA EL MEDIO AMBIENTE.
BIDEZKO MERKATARITZA BERDINTASUNA DEFENDATZEN DUEN AUKERA BAT DA.



# DESBERDINTASUNAREN TRAPU ZIKINAK

# LOS TRAPOS SUCIOS DE LA DESIGUALDAD




>> EL 70% DE LAS PERSONAS QUE VIVEN EN LA POBREZA SON MUJERES, Y CASI DOS TERCIOS DE ELLAS OCUPAN PUESTOS PRECARIOS DE TRABAJO EN LOS PAÍSES EN DESARROLLO.

**Pobreza, mujeres y comercio justo**

Lamentablemente, la pobreza sigue teniendo hoy cara y nombre de mujer, especialmente en los países menos desarrollados. Para luchar contra ella se han puesto en marcha diferentes proyectos de comercio justo en Asia, África y Centroamérica, cuyo objetivo principal es el empoderamiento de las mujeres, para que consigan hacerse escuchar y participar en la toma de decisiones y puedan, así, romper el círculo de la pobreza.

**Pobrezia, emakumeak eta bidezko merkataritza**

**Zer da bidezko merkataritza?**

Esan daiteke merkataritza-sistema solidarioa dela, konbentzionala ez bezalakoa, indarrean den sistema kapitalistak sortutako pobrezia eta gehiegikeriaren kontrako borrokan herrien garapena lortu nahi duena. Baina hemen ere generoa garrantzitsua da. Benetan “bidezkoa” dela esan ahal izateko, emakumeen eta gizonen desberdintasunaren errealitatea kontutan hartu behar du derrigorrez, zuzendu ahal izateko.

Pobrezian bizi diren pertsonen %70 emakumeak dira eta horietatik ia bi herenak lanpostu prekarioak dituzte garapen-bidean dauden herrietan. Hori kontutan hartzen ez duen edozein merkataritza ezin daiteke bidezkoa dela esan, desberdintasun-egoera oker hori iraunarazten lagunduko duelako.

**Campaña Ropa Limpia**

En el llamado primer mundo se rinde culto a la moda, y se gastan millones en prendas de confección, sin prestar atención a las pésimas condiciones de fabricación de esa ropa.






Se calcula que las mujeres suman el 80% de la mano de obra de la industria de la confección en los países del Sur. Aunque en muchos hogares de Camboya o Bangladés las mujeres son el sustento económico de la familia, siguen estando invisibilizadas y carecen de derechos básicos y reconocimiento social. Los salarios están muy por debajo de lo que tendría que ser un salario digno. Por ello, para sobrevivir, las mujeres se ven obligadas a gastar menos en su propia alimentación y a aumentar el tiempo de trabajo, lo que provoca malnutrición y empeoramiento de su salud, y, por ende, de la de toda su familia, que muchas veces depende de ella.

A la vista de esta terrible e injusta situación, nace la "Campaña Ropa Limpia", promovida, en España, por SETEM desde el año 1997. Dirigida a las y los consumidores, a la Administración Pública, y a las empresas del sector textil, persigue el beneficio de las trabajadoras del sector textil en los países del Sur.

Los principales objetivos de esta campaña son sensibilizar a las y los consumidores sobre el origen de su ropa y las condiciones laborales en el sector textil en los países del Sur, denunciar las situaciones de injusticia que se producen en ese sector y mejorar las condiciones de las trabajadoras, especialmente las salariales, así como fomentar un consumo más responsable y el comercio justo.

Si te interesa esta campaña solidaria, puedes encontrar toda la información en el siguiente enlace: **www.ropalimpia.org**

### Arropa Garbia Kanpaina
### Ba al dugu beste aukerarik?

Bidezko Merkataritza pertsonen duintasuna defendatzen duen aukera bat da, kultura ezberdinak eta ingurumena zainduz aldi berean.

Sistema horretan gizonek eta emakumeek berdintasunez parte hartzen dute, eta lehentasuna ematen zaie giza-harremanei, ekoizleentzat lan-baldintza duinak bermatzeko.

Zer bermatzen digu Bidezko Merkataritzak?

- Soldata eta lan-baldintza duinak
- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna
- Ez dela haurren esku-lanik erabili
- Funtzionamendu demokratikoa
- Etekinak komunitateen oinarrizko premiak asetzeko erabiliko direla
- Kalitatezko produktuak
- Epe luzerako lan-harremanak
- Prezioaren zati bat aldez aurretik ordaintzea
- Kontsumitzaileentzako informazioa
- Ingurumenarekiko errespetua

### Migraciones y protección de derechos

Las mujeres constituyen el 48% de la población migrante del mundo, y se desplazan dentro de su propio país, y también al extranjero, para encontrar trabajo en la confección y el calzado deportivo con el que mantener a sus familias. Los acuerdos comerciales y las inversiones extranjeras crean empleo en unos lugares y lo eliminan en otros; esto significa que las mujeres que necesitan ese empleo tienen que migrar para conseguir trabajo, con lo que, a menudo, se enfrentan a retos relacionados con la separación de sus familias, el desconocimiento del idioma y la falta de redes de apoyo. A menudo, estando en situación ilegal, no se las reconoce como trabajadoras, carecen de protección legal y son objetivo fácil para los abusos.

Para evitarlo existen los Códigos de conducta, que deben contemplar la perspectiva de género.




**Cambiando nuestros hábitos de consumo también podemos contribuir**

Averigua, por las etiquetas, dónde está hecha la ropa que compras; infórmate y exige. Puedes hacer muchas cosas individualmente y también de forma colectiva.

**En la Casa de la Mujer puedes apuntarte al taller "La moda incomoda. Tiremos del hilo" que SETEM va a impartir en mayo**

**www.setem.org**

**Jokabide-kodeak generoaren ikuspegitik**

Jantzigintza eta kiroletako oinetakoen sektoreetan enpresa handiek emakume langileen beharrizanak eta berezitasunak kontutan hartzen dituen jokabide-kodea erabili behar dute (batzuek erabiltzen dute) eta gardentasun-, partaidetza- eta kode hori betetzearen egiaztapen-neurri batzuk ere bai. Hemen informazio gehiago aurkituko duzu gaiaren inguruan:

**http://www.ropalimpia.org/es/analisis**

- Zer egin dezakegu Bidezko Merkataritzaren alde?
- Ba al dakizu zer erosten ari zaren?
- Nondik datozen kontsumitzen dituzun produktuak?
- Zein baldintzatan ekoizten diren?
- Zer finantziatzen duzun zure erosketarekin?

Galdetu zeure buruari ea erosiko duzuna benetan behar duzun; saiatu gauzentzat erabilera berriak topatzen; aukeratu Bidezko Merkataritzako produktuak; gauzak trukatu; kontsumitu bertako eta sasoiko produktuak… eta kutsatu zure ingurukoak.

Bisitatu web orri hau **www.setem.org** edo egin SETEMen bazkide.

## EMAKUMEEN JABEKUNTZA ESKOLEN SAREA

## Ikasturte Amaiera-Topaketa

**Jornada de Encuentro de las cuatro escuelas de la Red: Basauri, Ermua, Getxo y Ondarroa**

**Este año en Ermua, el día 6 de junio.**
**Inscríbete en la Casa de la Mujer**

# KALE INKESTA

## Preguntas
## GALDERAK

**1** **Kale- edo kirol-jantziak erosi baino lehen, begiratzen al duzu zein herrialdetan eginak dauden?**
Antes de comprar prendas de vestir o deportivas, ¿miras en qué países están confeccionadas?

**2** **"Hegoaldeko"ak direlako herrietan, sektore horretako langileen %80 emakumeak dira; ba al dakizu zein baldintzatan egiten duten lan eta zenbateko soldata kobratzen duten batez beste?**
En el caso de los países llamados "del sur", el 80% de las trabajadoras de este sector son mujeres; ¿conoces las condiciones en que trabajan y los salarios medios que les pagan?

**3** **Hemengo kontsumo-ohiturak aldatuta, haien egoera hobetzen lagun dezakegula uste duzu? Egiten al duzu zerbait horretarako? Zer?**
¿Crees que cambiando nuestros hábitos de consumo aquí podemos contribuir a mejorar su situación? ¿Sueles hacer algo en ese sentido? ¿Qué?

### MAITE VELARDE
### 20 años



1. Normalmente sí. Hay marcas de las que dicen que se hacen en este país y en condiciones bastante malas; procuro no comprarlas.
2. Sí, en condiciones malísimas. He leído un artículo hace poco en el que decían que no las dejaban ir al baño en toda la jornada laboral. Los salarios no les dan para comer, prácticamente.
3. Sí, claro. Si dejamos de comprar esas marcas, esas fábricas cierran y se acabó la explotación.

### VALERIANO HERNÁNDEZ
### 40 años



1. Normalmente no.
2. No lo conozco. Entiendo que hay desigualdades entre los países, pero no me obsesiono.
3. No. Suelo comprar la prenda por la relación calidad/precio. Pienso en lo que me interesa a mí en ese momento, si me encaja y si me gusta.

### RUBÉN PUENTE
### 38 urte



1. Batzuetan.
2. Ezagutzen dut apur bat, baina ez sakonean.
3. Bai, argi daukat baietz, baina ezer gutxi egiten dut.

### JULEN PÉREZ
### 20 urte



1. Ez, berdin zait.
2. Ez.
3. Bai, baina ez dakit nola. Ez ditut haien lan-baldintzak ezagutzen, ez eta nola lagundu ere.

# PASATIEMPOS

## DENBORAPASA

### 7 AKATS... NON?
### ENCUENTRA LAS 7 DIFERENCIAS






# Noticias de interés

## ALBISTE INTERESGARRIAK

### >> LAS MUJERES EN EL PROCESO DE INDUSTRIALIZACIÓN

El número 27 de Bilduma, la revista que edita el archivo municipal de Errenteria, recoge el trabajo: "Galleteras y más: desde las vivencias hacia la historia. Huellas de las mujeres en el proceso de industrialización de Errenteria (siglos XIX-XX)". Con él se pretende, entre otros objetivos, homenajear a las mujeres que han sido protagonistas y han jugado un papel importante en el proceso de industrialización municipal. Más información en: **http://www.diariovasco.com/oarsoaldea/201503/14/bilduma-recoge-trabajo-sobre-20150314010549-v.html**

### >> SATURRARANGO KARTZELAN EGON ZIREN EMAKUMEAK

1938tik 1945ra arte Mutrikuko Saturraran kartzelan espetxeratuta egon ziren emakumeen zerrenda publikatu du Euskal Memoria Fundazioak bere webgunean: **http://db.euskalmemoria.com/espetxeratuak_saturraran.** Bertan, 1.583 izen aurki daitezke. Herriz-herri eta eskualdez-eskualde egindako zerrenda argitara eman aurretik, baieztatu daitezkeen 3.273 tortura kasu ere zabaldu zituzten bere webgunean, baita Ezkabako gotorlekuan preso egon eta bertan bizia galdu zuten pertsonen zerrenda ere (69 gutxienez).

### >> TERCERA OPCIÓN DE GÉNERO EN ALEMANIA

Alemania se ha convertido en el primer país europeo en oficializar la tercera opción de género. Con la nueva legislación, los bebés de ambos sexos podrán escoger, en su edad adulta, si quieren estar bajo la categoría masculina o femenina. También se ofrece la opción de pertenecer a la categoría del tercer género, entendido como indeterminado. Sin embargo, la normativa sólo ofrece esta opción a las personas intersexuales.

### >> KAZETARIEN BERDINSAREA

Kazetarien Berdinsarea genero ikuspegia duen euskal kazetariaren sarea da. Helburu nagusiena da hedabideetan salatzea genero arrazoiengatik ematen diren diskriminazio eta bereizketak, batez ere emakumeen kontra gertatzen direnak, arlo pribatuan, kolektiboan zein erakundeetan, besteak beste. Jorratzen duten gaiak dira, esate baterako: indarkeria matxista, maskulinitatea, transexualitatea eta abar. Informazio gehiagorako:
**http://kazetarionberdinsarea.blogspot.com.es/**

### >> ARTE FEMINISTA EN EL GUGGENHEIM-BILBAO

Hasta el 11 de junio se podrá visitar una exposición, organizada de forma cronológica y temática, sobre el arte radical feminista y social de la artista francesa Niki de Saint Phalle, considerada la primera creadora feminista del mundo. Además de las obras más emblemáticas de su carrera, esta exposición nos acerca a sus grabados, performances y trabajos de cine experimental, con comentarios de la propia autora. Compra de entradas y más información en:
**http://nikidesaintphalle.guggenheim-bilbao.es/**

### >> EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EUSKAL HERRIKO LEHENENGO FORU ARAUA

2/2015 Foru Arauaren testua onartu zen Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta martxoaren 16ko GAOn, 50 zenbakian, argitaratu da.
**https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2015/03/16/c1502351.pdf**

### >> ¿QUIÉN FUE EMMY NOETHER?

Emmy Noether, fue una intelectual brillante, matemática, especialista en álgebra, pacifista y liberal. Fue expulsada de la Alemania nazi por su origen judío. Sus principales aportaciones suponen un legado de incalculable valor. En 1918 propuso el conocido Teorema Noether, que se aplica a la física matemática. Aquí encontraréis más información y sugerencias de actividades en el aula de secundaria para que se conozcan las aportaciones de las mujeres a las matemáticas:
**http://www.fe.ccoo.es/comunes/recursos/25/pub99423_Otras_miradas._Aportaciones_de_las_mujeres**




> **Edita Argitaratzen du:**
**Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua**
**Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak**

> **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Idoia Carracedo,
Zaida Fernández, Olga Bayón y Eva Carballal.

> **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández

> **Realización Egilea:**
La Central B.E.

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.*
***Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.***


*Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.*
***Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.***


**CASA DE LA MUJER / EMAKUMEEN TOPALEKUA**
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnoa: **943 171 030** · Faxa: 943 170 123 · E.posta: casadelamujer@udalermua.net
web: **www.ermua.es**


Casa de la Mujer / Ermua
Emakumeen Topalekua


Depósito Legal: BI-243/2010